

## 2019an GAZTEENTZAKO PROIEKTU EDO JARDUERA BEREZIAK FINANTZATZEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDI PUBLIKOAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK

IN-E 180/04-19

UDAL SAILA:	GAZTERIA SAILA														
INSTRUKTOREA:	Gazteria teknikaria (Iñaki Lopez)														
BALORAZIO BATZORDEA:	Gazteria batzordean ordezkariak duten alderdi politiko bakoitzeko zinegotzi bana (4) + Gazteria teknikaria														
ERABAKIA HARTUKO DUEN ORGANOA:	Tokiko Gobernu Batzarra (TGB)														
DIRU-LAGUNTZA ARLOA:	Garzteentzako proiektu edo jarduerak bereziak.														
KODEA:	Gazteria diru-laguntzak 2019														
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU KOPURUA:	2.000 euro. (01200-33421-4810308 partida: Diru-laguntzak Gazteria)														
BERAU EZARRITA LORTU NAHI DIREN HELBURU ETA ONDORIOAK:	<p>2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean garzteentzako bideratzen diren proiektuak eta jarduerak bereziak antolatu eta gauzatzetik sortzen diren gastuak ordaintzen laguntzea da deialdi honen xedea.</p> <p>Diru-laguntza deialdi honekin, gazteei gizarteratze aktibo eta parte-hartzailea ahalbidetzen dieten alternatibak eskaini nahi dira.</p>														
EPEAK:	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskariak aurkezteko epea, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da.</li> <li>Eskariak eta agiriak aurkezteko epea, hamabost (15) egun naturalekoa izango da, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Azken eguna zapatua edo jaieguna bada, hurrengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da epea.</li> <li>Diru-laguntzaren zuriak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 10era artekoa izango da.</li> </ul>														
BALORAZIO IRIZPIDE ZEHATZAK:	<table border="1"> <tr> <td>Bermeorako bereziki sortutako proiektua/jarduera</td> <td>10 puntu</td> </tr> </table> <table border="1"> <tr> <td>Taldearen antzintasuna</td> <td>15 puntura arte</td> </tr> <tr> <td>3 urtera arte</td> <td>3 puntu</td> </tr> <tr> <td>4 eta 10 urte bitartean</td> <td>6 puntu</td> </tr> <tr> <td>11 eta 15 urte bitartean</td> <td>9 puntu</td> </tr> <tr> <td>16 eta 25 urte bitartean</td> <td>12 puntu</td> </tr> <tr> <td>25 urtetik gora</td> <td>15 puntu</td> </tr> </table>	Bermeorako bereziki sortutako proiektua/jarduera	10 puntu	Taldearen antzintasuna	15 puntura arte	3 urtera arte	3 puntu	4 eta 10 urte bitartean	6 puntu	11 eta 15 urte bitartean	9 puntu	16 eta 25 urte bitartean	12 puntu	25 urtetik gora	15 puntu
Bermeorako bereziki sortutako proiektua/jarduera	10 puntu														
Taldearen antzintasuna	15 puntura arte														
3 urtera arte	3 puntu														
4 eta 10 urte bitartean	6 puntu														
11 eta 15 urte bitartean	9 puntu														
16 eta 25 urte bitartean	12 puntu														
25 urtetik gora	15 puntu														

<b>Sarean aurkeztutako proiektua edo jarduera, hainbat elkarteren artean</b>	<b>10 puntu</b>
--	-----------------

<b>Proiektuaren/jardueraren jarraipena eta egonkortasuna</b>	<b>15 puntura arte</b>
3 urtera/ediziora arte	3 puntu
6 urtera/ediziora arte	6 puntu
9 urtera/ediziora arte	9 puntu
12 urtera/ediziora arte	12 puntu
15 urtetik/ediziotik gora	15 puntu

<b>Proiektuaren/jardueraren erabiltzaile/hartzaile/ikusle kopurua (aurreikusita daudenak edo aurreko urtean izandakoak)</b>	<b>10 puntura arte</b>
50era arte	2 puntu
51 eta 100 bitartean	4 puntu
101 eta 300 bitartean	7 puntu
300tik gora	10 puntu

<b>Aniztasunaren tratamendua</b>	<b>15 puntura arte</b>
-Hizkuntza-normalizazioa barne hartzea	3 puntu
-Hizkera ez-sexista erabiltzea	3 puntu
-Genero ikuspegia barne hartzea	3 puntu
-Etorkinak gizarteratzeko jarduerak barne hartzea	3 puntu
-Balioak bultzatzeko jarduerak barne hartzea	3 puntu

<b>Proiektuaren/jardueraren berritasuna (elementu berritzaileak izatea) eta sormena</b>	<b>10 puntu</b>
---	-----------------

<b>Norbere finantziazioa edo beste diru iturri batzuk izatea</b>	<b>15 puntura arte</b>
Aurrekontuaren %5 eta %20 bitartean	8 puntu
Aurrekontuaren %20tik gora	15 puntu

**ESKATZAILEAK:**

Edozein pertsona juridikok eskatu ahalko ditu, baldintza hauek betetzen baditu:

- Irabazi-asmorik gabekoa izatea.
- Legez erata eta Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Entitateen Erregistro Nagusian edo dagokion erregistro publikoan erregistratuta egotea (eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean).

	<p>c) Egoitza Bermeon izatea eta Bermeoko udalerraren esparruan garatzea bere jarduerarik garrantzitsuena, gazteentzako proiektu edo jarduerak sortzen.</p> <p>d) Bermeoko Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazioak behar diren moduan eta egunean izatea.</p> <p>e) Diru-laguntza eskatzen den egunean tokiko zerga zorrak ordainduta izatea. Bermeoko Udalak ziurtatuko dau puntu hau.</p> <p>f) Identifikazio fiskaleko kodea izatea eta egunean egotea betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzian.</p>
<p><b>DIRUZ LAGUNDUKO DIREN PROIEKTUAK:</b></p>	<p>a) Elkartetako gazteen ekoizpen eta lanak komunitateari ezagutzera emateko proiektuak eta jarduerak.</p> <p>b) Gazteentzako programa eta zerbitzuen garapenean horien protagonismoa sustatzen duten proiektuak eta jarduerak.</p> <p>c) Herrian gazteak ikustaraztea eta haien presentzia aktiboa sustatzen duten proiektuak eta jarduerak.</p> <p>d) Gazteen artean prestakuntza eta herritartasun aktiboa sustatzen duten proiektuak eta jarduerak.</p> <p>e) Gazteak elkartzea eta boluntario izatea sustatuko duten proiektuak eta jarduerak.</p> <p>f) Gazteei osotarako prestakuntza emateko garrantzitsuak diren alorretan, gazteen artean eta gazteen eta besteen artean, informazioa, hausnarketa, eztabaida eta elkarrizketa sustatzen dituzten proiektuak (kultura arteko eta belaunaldien arteko proiektuak).</p> <p>g) Gazteek gizartean parte hartzea sustatzen duten proiektuak.</p> <p>Ez dira deialdi honen xede izango:</p> <p>a) Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.</p> <p>b) Udaleko beste sail edo zerbitzuen zein beste erakunde batzuen berariazko deialdien xede diren proiektuak.</p> <p>c) Irabazi-asmorik gabeko entitateen azpiegitura eta ohiko funtzionamenduaren ondorio diren zeharkako gastuak.</p>
<p><b>PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:</b></p>	<p>Diru-laguntzak emateko prozedura: Konkurrentzia lehiakorra.</p> <p>Esleipendun bakoitzak ezingo du diru-laguntza bi baino gehiago jaso.</p> <p>Diru-laguntza eskaria Udaleko eranskinean aurkeztu beharko da, datu guztiak ondo bete ostean. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:</p> <p>a) IFKren fotokopia (aldez aurretik aurkeztu ez bada).</p> <p>b) Betebeharriskaletan eta Gizarte Segurantzian egunean egotearen egiaztagiriak (edo Bermeoko Udalari baimena eman hori ziurtatzeko).</p> <p>c) Jardueraren aurrekontu zehatza, dagokion eranskinean, diru-sarrerak (kuotak, bestelako diru-laguntzak edo diru-iturriak), gastu guztien aurreikuspena eta Udalari egindako diru-laguntza eskari zehatza.</p> <p>d) Elkartek beste erakunde batzuei eskatutako diru-laguntzen zerrenda ordezkariaren ziurtagiriarekin. Eskaera horren erabakia/ebazpena egongo balitz, erabakia/ebazpenaren kopia.</p>

e) Elkarteko estatutuen fotokopiak eta zuzendaritza batzordeko kideen izendapena eguneratuta (aldez aurretik aurkeztu ez badira).

**Akatsak zuzentzeko epea:** Diru-laguntza eskariak ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak hamar (10) egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita. Denbora tarte horretan ez badira zuzentzen, eskariari uko egiten zaiola ulertuko da.

**Gehienezko diru-laguntza kopurua:** Onartutako aurrekontuaren %100era arte.

Baremo hauek kontuan izanik kalkulatu da diru-laguntzaren zenbatekoa:

<u>Proiektuari emandako puntuak</u>	<u>Emango den diru-laguntzaren %a</u>
81tik 100 puntura bitartean	Onartutako aurrekontuaren % 100era arte
71tik 80 puntura bitartean	Onartutako aurrekontuaren % 90era arte
30etik 70 puntura bitartean	Onartutako aurrekontuaren % 80ra arte

Konkurrentzia lehiakorra baliatuko da diru-laguntzak emateko prozedura bezala. Proiektu edo jarduera bakoitzerako onartutako aurrekontuari lortu duen puntuazioa aplikatuz ateratzen dena izango da diru-laguntzaren zenbateko osoa (aurrekontua agortu arte). Puntuazio-hurrenkeran emango dira diru-laguntzak, puntuaziorik handiena lortu dutenetatik hasita.

Salbuespen moduan, 500 € arteko aurrekontua daukan proiektuak/jarduerak, eta 70 puntutik gora lortzen baditu, gehienez, aurrekontuaren %100a lortu ahalko du.

**Beharrezko gutxienezko puntuazioa:** 30 puntu.

Salbuespen moduan, 30 puntura heltzen ez diren eta diru-laguntza deialdi honetara lehen aldiz aurkezten diren pertsona edo entitateek aurkeztutako proiektuek/jarduerak 100 €-ko diru-laguntza jaso ahalko dute.

**Diru-laguntzaren ordainketa:** Proiektua/jarduera bukatzen denean eta jarduera osoa gauzatu dela justifikatu ondoren ordainduko da diru-laguntza. Diru-laguntza ondo justifikatzeko, eskaeran agertzen den aurrekontuaren %100a fakturekin justifikatu beharko da, nahiz eta diru-laguntzaren kopurua txikiagoa izan. Desadostasunik balego, Gazteria batzordeak aztertuko luke.

Honako kasu hauetan ez da diru-laguntzarik ordainduko: pertsona edo entitate onuradunak Bermeoko Udalak emandako diru-laguntzaren bat justifikatu gabe baldin badu edo entitateak aurreko diru-laguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaiolarik. Ezingo da diru-laguntza ordaindu harik eta pertsona edo entitate onuradunak zerga-betebeharrak beteta eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta eduki arte, ezta dirua itzultzeko prozedura ebatzita zordun bada ere.

**Diru-laguntzaren onuradunen betebeharrak:**

- Oinarri berezi hauetako arauak betetzea.
- Programaren ardura berea egitea.
- Proiektua/jarduera zabaltzeko erabiliko diren baliabide eta euskarri guztietan (kartelak, esku-orriak, iragarkiak, sare sozialak...) diru-laguntzaren aipamena egitea, Bermeoko Udaleko eta Gazteentzako Informazio Zerbitzuko logoak jarritz.
- Bermeon, Udalak jarritako paneletan ezin izango dira 40 kartel baino gehiago jarri. Herriko hormetan ezin izango da kartelik jarri.
- Udalari jakinaraztea beste diru-laguntza batzuk hartzen baditu eta horien zenbatekoa (guztien artean ezin izango dira %100 baino handiagoak izan).

**Diru-laguntza justifikatzea:**

- Diru-laguntzaren onuradunak 2019ko diru-laguntzaren zuriketa egin beharko du, Udaleko eranskinean, egoitza elektronikoa, Berh@z bulegoan edo Gazteria Sailean, Bermeoko Udaleko diru-laguntzen oinarri orokorren 17. artikuluan jasotzen den moduan, 2020ko urtarrilaren 10a baino lehen.
- Justifikaziorik egiten ez bada edo egindako justifikazioa nahikoa ez denean, ez da diru-laguntzarik ordainduko, nahiz eta onartuta egon.
- Ebaluazio-memoria, Udaleko eranskineko edukiaren arabera egingo da: egindako proiektu edo jardueraren garapena, parte-hartzaileak, balorazioa eta balantze ekonomiko osoa jasota.
- Erabilitako publizitatea (kartelak, esku-orriak, triptikoak...) aurkeztu beharko da, aurretik ez bada aurkeztu.
- Ordaindutako faktura originalak edo fotokopia konpultsatuak (konpultsak Udaleko Berh@z bulegoan egin ahalko dira). Faktoretan, derrigorrez, enpresaren izena, IFK edo IFZ, faktura zenbakia, data, kontzeptua, elkarte eroslearen datuak, zenbatekoa eta BEZa azaldu beharko dira. Dagokion egiaztapena egin eta gero, faktura originalak bueltatu egingo dira. Ez da onartuko beste gastu batzuen justifikaziorik, horiek ez badute balio diru-laguntzaren helburuak lortzeko.
- Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak eta aparkalekuetako tiketak onartuko dira diruz-lagundutako proiektuarekin bat datozenean eta justifikazio osoaren %25a baino ez badira.

**Akatsak zuzentzeko epea:**

Justifikazioak ez baditu eskatutako agiri guztiak aurkezten, interesdunak hamar (10) egun izango ditu akatsak zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen denetik kontatzen hasita.

**AURREIKUSITAKO  
KOSTUAK PROGRAMA  
HONETAN**

Guztira, gehienez, 2.000 euroko aurrekontua dago deialdi honetarako.

**SEGIMENTSU ETA  
EBALUAKETA EGITEKO  
BEHARREZKO  
ADIERAZLEAK**

- Eskatzaile kopurua.
- Herrian izandako eragina. Indizeak eta balorazio irizpideak.

**ERLACIONATUTAKO  
AGIRIAK:**

**GENERO ERAGINA**

1/1982 LOaren arabera  
argitagarria ez den  
emakida

**BATERE EZ**

*Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilaria buruzkoa.*  
EZ